



# CURRICULUM ABERASTEA



Donostiako Berritzegunea  
2019-03-21


# 1. BURUA BEROTZEKO



1. Zertan dute antza argazki kamerak eta liburuak?
2. Zein da liburu baten gaindia?
3. Liburua hain zen ederra, ezen...

# SAIOAREN EDUKIA

1. Burua berotu
2. Gelako aniztasunarekin lan egiteko estrategiak (Carol Ann Tomlinson) – Solasaldi dialogikoa
3. Interesetan oinarritutako irakaskuntza (Carol Ann Tomlinson)
4. Gehiago jakiteko
5. Hurrengo saiorako



## 2. GELAKO ANIZTASUNAREKIN LAN EGITEKO ESTRATEGIAK

Carol Ann Tomlinson

# IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA

## DINAMIKA

SOLASALDI DIALOGIKOA

## HELBURUA


Testuaren edukia partekatzea eta elkarrekin gaiaren gaineko ezagutzan aurrera egitea.

## GARAPENA


Bakoitzak aukeratutako paragrafoa besteei azaltzen die, beren arrazoiak emanaz.  
Horiez gain, testuaren irakurketak sortu dizkion hausnarketak, zalantzak, interes-guneak eta eztabaidak.




# ZER DA ETA ZER EZ DA IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA



# ZER DA ETA ZER EZ DA IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA



**IRAKASKUNTZA  
EZBERDINDUA**





# IKASKUNTZAREN ETA IRAKASKUNTZAREN 3 ONDORIO GARRANTZITSU

Irakaskuntza  
ezberdindua  
eraginkorraren  
motorra

Ikasle estandarra  
ez da existitzen

Ez dago ordezkorik  
kalitate handiko  
curriculumerako  
eta ikaskuntzarako

Ikaslearen eta  
ikaskuntzaren  
arteko zubiak  
eraiki behar dira

# IKASLE AURRERATUEN BEHARRAK ULERTZEN

Alperrak bihurtu daitezke, nahiz eta eskolan ondo joan.


Arrakastaren sareetan harrapatuta gelditu daitezke.

Perfekzionistak bihurtu daitezke. Askotan ez dute borrokatzen ikasten, ez eta porrota izaten ere

Beren eraginkortasun pertsonala zapuztuta ikus dezakete, ez dutelako esfortzatu behar.

Ikasteko eta aurrera egiteko trebeziak garatu gabe gelditu daitezke.

# IKASLE AURRERATUEN HAZKUNDEA ORIENTATZEKO OINARRIAK



# IKASLE AURRERATUEN EKOIZPEN JARDUERAK EGOKITZEKO PRINTZPIOAK

1. Eginbeharra egituratu maila ezberdinetan aurrera egin dezaten: konplexutasuna, autonomia, eraldaketa, abstrakzioa, ikuspegi anitzeko irtenbideak eta barneratzean.
2. Denboraldi, diziplina edo kultura ezberdinetako gakoak ikas dezaten aukera aztertu.
3. Ahal den neurrian, maila altuko ikaskuntzak sartu: material konplexu eta askotarikoak, iturri eta dokumentu orijinalak, eta ikasleak egindako ikerketa zuzena.
4. Ikaskuntza gidatzeko mentoreak erabiltzea aztertu, bere lanaren edukia eta kalitatea areagotzen sustatzeko.
5. Besteak baino lehenago proiektuak hastea aintzat hartu, beren kontsignen konplexutasunak hala justifikatzen badu.
6. Edukirako eta ekoizpenerako irizpideak prestatzen laguntzen utzi. Planifikaziorako eta ebaluaziorako erabili.
7. Egokitzen jotzen denean, beren ekoizpenak aditu batek ebaluarazi.

# ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEEN GAITASUNAK MAXIMIZATZEKO PRINTZPIOAK

Zailtasunak dituzten ikasleen nolakotasun positiboak bilatu. Horiek erabili zailtasunei aurre egiteko.

Ez utzi gaizki dabilenak ondo funtzionatzen duena zapuzten.

Garrantzitsuari arreta jarri. Unean erabilgarria denetan indarra jarri.

Ikaskuntza esanguratsua bilatu: ideia garrantzitsuak, kontzeptu gakoak, gaiaren oinarriak. Esanahiaren aldarmioak eraikitzen laguntzen du.

Maila igoz irakatsi, erronkak jarritz.

Ikaskuntzarako bide asko erabili.

Maitasunez begiratu.

# ZAILTASUNAK DITUZTEN IKASLEENTZAKO JARDUEREN PLANIFIKAZIORAKO PRINTZIOIAK

Garbi utzi ikasleek jakin, ulertu eta egiteko gai izan behar dutena.


Ideien ulermenerako eta aplikaziorako xede garrantzitsuak finkatu eta horiek lortzeko aldordioak nola eraiki ezarri.

Modalitate anitzez ikaskuntza eta irakaskuntza diseinatu.

Ikaslea berarengan sinesten duzula jakinarazteko moduak bilatu eta aurrerapenak gertatzen direnean indartu.

# IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA

Irakaskuntza berezitua ez da eginbehar normalak ematea ikasle gehienei, eta bereziak ikasle aurreratuei (lan estratztat har dezakete) edo zailtasunak dituztenei (gutxiago direla uler dezakete).




**INDARTSUENAREN  
LEGEA**




**GATAZKAK**

**IRAKASLEA**



Ikaskuntzarako aukeren antolatzailea

**IKASLEEK**



Irakaslearen energia, afektua eta gaitasuna behar dituzte

# IRAKASKUNTZA NOLA EZBERDINDU: OINARRIZKO ARAUAK

- Kontzeptu gakoak garbi eduki eta gaiari zentzua eta egitura ematen dizkioten printzipioak
- Ikasleen diagnostikoa erabili planifikazioaren ibilbide mapa gisa
- Gelako lanak ikasle guztien pentsamendu kritikoa eta sortzailea sustatu behar ditu.
- Gelako lana erakargarria izan behar du ikasle guztientzat.
- Irakasleak zuzendutako jarduera eta taldekatzeak ikasleen aukeratutakoen artean oreka egon behar da.





# IKASKUNTZA GIROA EZBERDINDUTAKO IKASGELA BATEAN

## 1. Denak ongietorriak sentitzen dira eta besteak hala sentitu daitezzen laguntzen dute.

- Irakaslearen arreta zuzena eta positiboa.
- Denen onarpena.
- Guztion artean gela apaindu.
- Gelaren antolaketa malgua.
- Ikasleen gauzez hitz egin.

## 2. Elkarren arteko errespetua negoziatzina da.

- Irakasleak laguntzen du bereizten norbaitek egin zuenaren inpresioa eta pertsona horren balioa.
- Gatazkak modu eraikitzailean konpontzen irakasten die.
- Umorea erabili.

## 3. Ikasleak seguru sentitzen dira

- Laguntza eskatzeko, ez dakitela esateko.
- Ideiak garatzeko aukera izango dela.



# IKASKUNTZA GIROA EZBERDINDUTAKO IKASGELA BATEAN

## 4. Hazkunderako itxaropen orokorra dago

- Xedea ikasle guztiei ahal duten maila altuenera laguntzea da, bai bere trebezi orokorretan, bai berariazko talentuetan.
- Bakoitzaren hazkundera ospatzeko arrazoia da.

## 5. Ekitate mota berri bat gailentzen da

- Bakoitzak behar duena jasotzen duela bermatzen du.
- Denek daukate gauzak ondo funtzionatzeko erantzukizuna.



## 6. Irakaslea eta ikasleak kolaboratzen dute denen hazkundera eta lorpenak lortzeko

- Irakasleak lidergoa dauka, baina ikasleek lagundu dezakete lan modalitateak diseinatzen, arazoak konpontzen, ohiturak hobetzen, elkarri laguntza ematen, beren ikasketetan egunean jartzen...
- Ikasleek ardurak hartzen dituzte.
- Irakasleak eredia ematen du bilatzen duena lortzeko: pozik lan egin, besteen konpainiaz gozatu, ontasunez jokatu eta adiskidetasuna azaldu.

# IKASKUNTZA GIROA EZBERDINDUTAKO IKASGELA BATEAN

## Bi gomendio praktiko:



- **Ikasleak estimulatu taldekide aktiboak izan daitezzen.**
  - Talde lana behatu: zer doa ondo, zer hobetu behar da
  - Jarduerak eta kontsignak prestatu lan eraginkorragoa eta positiboagoa izateko
  - Helmugak finkatzeko, hausnartzeko eta problemak ebazteko bihotz eman
  - Aurreikusi zer egin erantzuten ez duten ikasleekin
  - \* Taldeek hobeto funtzionatuko dute baldin badakite zer egin, nola egin, zer espero den beraiengandik eta kalitate adierazleak zeintzuk diren, bai prozesurako, bai produkturako.
- **Talde malguak planifikatu**
  - Helburuen arabera eta irizpidearen arabera taldekatze ezberdinak
  - Ikasleek aukeratutako taldekideak
  - Batzuetan gaitasun maila antzekoa duten ikasleen taldea – denentzako probetxugarria izateko.
  - Beste batzuetan interes antzekoak dituztenak...
  - \* Taldekatze malguk ikasleen errespeturako osagai funtsezkoa da, ezberdintasun pertsonalen errekonozimendua, itxaropenen lorpenera zuzendutako irakaskuntza eta kooperazioa.

### 3. IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA INTERESEN ARABERA

# IRAKASKUNTZA EZBERDINDUA INTERESEN ARABERA



Estrategias para trabajar la diversidad en el aula  
CAROL ANN TOMLINSON

# 5. GEHIAGO JAKITEKO



- Liburua: *Estrategias para trabajar con la diversidad del aula*. Carol Ann Tomlinson
- Materiala: 2017-2018ko mintegian erabilitakoa
- 3. saioa: <https://elearning3.hezkuntza.net/013156/mod/folder/view.php?id=2895>
- 4. saioa: <https://elearning3.hezkuntza.net/013156/mod/folder/view.php?id=2909>
- Sitea: <https://sites.google.com/site/curriculumaaberastea/home>

## 6. HURRENGO SAIORAKO

- Proiektu hau alderatu interesen arabera irakaskuntza ezberdinduarekin:  
<https://aacclarebeliondeltalento.com/2018/12/22/a-xmas-gift-save-the-bees/>
- Ikasle talde batekin Unitate Didaktiko edo Proiektu baten alderdi bat moldatu ikasleen interesak garatu ahal izateko.

